

## ZERGATIK MARTARI?

Marta poz-pozik zegoen ikastolako lehen eguna hasteko, bere gurasoekin lehen Parisen bizi zelako, baina bere gurasoak pentsatu zuten bereiztea, egun osoan haserre egoten zirelako. Eta horregatik bere amarekin etorri zen Donostiara, baina bere Pariseko lagun bat ere Donostiara etorri zen bizitzera, haren izena Mikel zen. Orain bere amarekin zegoen kotxean, Donostira bidean.

- Ama! Zelako eguna pasatuko dudala pentsatzen duzu ikastolan? -esan zuen Martak pozik.
- Laztana, zure egun hau mundiala izango da! -erantzun zion Martari amak.

Egun hartan, bere amak ez zuen asmatu. Egun hartan berak oso txarto pasatu zuen eta.

Goizeko 9:00rak ziren eta Marta ikastolako atean zegoen. Orain mateko klasea zeukan eta ez zekien non zegoen mateko klasea. Urrutira bi neska ikusi zituen berari begira, eta pentsatu zuen haiei galdetzea non zegoen mateko klasea.

- Kaixo, ba al dakizue non dagoen mateko klasea?
- Bai, hemendik segi aurrera eta ezkerretara -esan zion haietako batek.
- Eskerrik asko -esan zuen martak.

Martak neskak esan zuena egin zuen “zegi aurrera eta ezkerretara” baina hara heltzerakoan garbitzaileen gela topatu zuen, ez mateko klasea.

Momentu hartan ez zekien zer egin Martak eta lehenengo gauza burura etorri zitzaiona bere amari deitzea izan zen, baina ez zuen nahi bere ama kezkatzea, oso gaizki pasatu zuelako banaketarekin. Horregatik, Mikeli deitu zion.

- Kaixo Mikel. Non zaude? -galdetu zion Martak.
- Ba, mateko klasean, eta zu? Hemen egon beharko zinateke zu ere -esan zion Mikelek kezkatuta.
- Ez nekien non zegoen mateko klasea eta bi neskei galdetu diet, baina garbitzaileen gelan bukatu dut -esan zion Martak.
- Egon zaitez hor, oraintxe noa. -esan zuen Mikelek.

Mikel heldutakoan Martari besarkada bat eman eta zer gertatu zen galdetu zion. Martak pentsatu zuen neskak konfunditu egingo zirela, baina ez zen horrela izan, neskak apropos egin zuten. Eta Martak nola zekien gezurra esan ziotela, beraren liburuak takilan zeuden eta Marta liburuak hartzera joan zen. Eta han entzun zuen.

- Neska itsusi horri gezurra esan diogu eta ez da konturatu -esan zuen neskak.

Horregatik Martak jakin zuen gezurra esan ziela apropos. Martak anderenui esan zien, baina nola ez zekien nesken izenak Mikeli esan zion berarekin etortzeko andereñoengana.

- Kaixo andereño -esan zuen Martak.
- Kaixo Marta, zer behar duzu? -esan zien andereñoak.

- Ba, bi neskek gezurra esan didate eta pentsatzen nuen zuri esatea haiek zigortzeko.
- Ze neskek? -galdetu zuen andereñoak
- Marianek eta Karlak esan diote gezurra -esan zuen Mikelek.
- Bale ba komunak garbitzera zigortuko ditut, 2 astetan, zuek lasai -esan zuen andereñoak.

Andereñoak egia esa zuen. Marianeri eta Karla komunak garbitzen ikusi zituelako 17:00etan. Martari ez zioten gezur gehiago esan. Eta ordutik aurrera, guztia ongi joan zen ikastolan.

*Perro Salchicha*